



DESATADURAS

Nerea Lekuona

ERAKUSKETA / EXPOSICIÓN

DESATADURAS

Nerea Lekuona

Irailaren 23tik azaroaren 20ra
Del 23 de septiembre al 20 de noviembre

SALA MENCHU GAL

Antolatzailea / Organiza

Irungo Udala. Kultura eta Kirol Arloa
Ayuntamiento de Irun. Área de Cultura y Deportes

Testuak / Textos

Rubén Díaz de Corcuera

Laguntza / Producción

Centro Cultural Montehermoso Kulturunea
Vitoria-Gasteizko Udala Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Zas Kultur Espazioa
Arabako Artxiboa / Archivo de Álava
VEGAP, (Visual Entidad de Gestión de Artistas Plásticos)
Eusko Jaurlaritza - Kultura Saila
Gobierno Vasco - Departamento de Cultura

Argazkiak / Fotografías

Jorge Salvador

Diseinua / Diseño

typo90

Argitaratzailea / Editor

Irungo Udala / Ayuntamiento de Irun

Gordailu legea / Depósito legal

LG D 956-2022

Handwritten text in a circular arrangement, alternating between black and red ink. The text is written in a Gothic script. The words are arranged in a circular pattern, with some words appearing to be part of a larger sentence or phrase. The text is highly stylized and difficult to read due to the circular arrangement and the alternating colors.
































IRTEERA
SALIDA



ANTINUCLEAR ANTINUCLEAR ANTINUCLEAR
ANTINUCLEAR ANTINUCLEAR ANTINUCLEAR
ANTINUCLEAR ANTINUCLEAR ANTINUCLEAR
ANTINUCLEAR ANTINUCLEAR ANTINUCLEAR
ANTINUCLEAR ANTINUCLEAR ANTINUCLEAR

**READ
MISION**



ABSORCION
LIBERTAD
CALZACION
NUCLEAR TER
BETJOSSM
VOTESESTA
LIBERTADPA
SUCHEMOSP
ONUCLEARNO
OIFNO BSESE
IRAVANZANDOP
EA CONSTITUYENT
NTICELARUOT
PORLIBERTAD
DESTRUCCIOND
ESTAMB
EREMO

KADIEU
KADIEU
KADIEU
KADIEU
KADIEU
KADIEU
KADIEU
KADIEU
KADIEU
KADIEU

ESTADO




ANTINUCLEAR
TRATADOS
EXCLUSIONE
RISMO EST
DE LA SPR
TODERUT
TODASIAS
QUE ES N
CIAS S
R TOR S
UNA A S
R S C T
TERMINAC
EL HOMB
A S C A
N LOSQU
EG M L E

**Ask
ata
suna**



OS
KAD



OA
ERA

IRABAZI
ARTE

PUNIO
YHORA

EU
KA
UZ
KA
IZ
E
Z
K
O
A
E

AAIDHEMENDIUTZIPKVE
REKINASKATASUNORTZEKORAN
EROROKORMETAPORANTZAKAN
IA NAMNISTADENONITZABORRUBORROKDA
ZE NAKKILERADETENITJONNREZDA
PRES OAKKILERADETENITJONNREZDA
NTZIEZKONSTITUZIONIEZEZDES
REIVEZKONSTITUZIONIEZEZDES
REKOMIMEUSKADIKLEUSKASKA
UTONNAIDEMNISTAEUSKADIKO
UNARETAZBA TEUKSADIBAVASKORR
OZAZPMEUSKADIKEDZUBOIT-IR
BITALDIMEUSKADIKEDZUBOIT-IR
ONTFRAKORREFMSZISTAKANPORTE
EFENDADEZAGUGUREADAHITZ
TOANAHIDITURMAIURINOIZEZ
AKIAHERRIHARRMATAINDEPENDENTZ
AKIAHERRIHARRMATAINDEPENDENTZ
NTZIRRENNAIDEPARTILUSMORREN
AKIIRABAZIARTELEMOIZAPUR
AKIIRABAZIARTELEMOIZAPUR
AHIDITUGOPRESOMKAIER
EPPIKASVOPRESOMKAIER
DAZAZPIKASVOPRESOMKAIER
FANEUSKADIKHERRIPISHER
RMEZDUBARIKATIKO
GORKME

SEX DRUGS
& SOBERE

U
A



aviso
PRIMER AVISO.
ENTREGUEN 1.000.000 DE PTS
SI NO QUIERE

VER VOLADO EN TROZOS
EL BANCO

POR UNA BOMBA
HABLAMOS EN SERIO

ETA VASAMBLEA

POR FAVOR OBEDEZCA

NO QUEREMOS

HACER DAÑO

AVISO ETA

PRIMER AVISO

ENTREGUE LA CANTIDAD DE

2.000.000 DE PTS

SI NO QUIERE QUE LA MATEMOS

A NAVAJAZOS UN DIA DE ESTOS

POR FAVOR HAGA CASO

SI NO QUIERE MORIR COMO UN CERDO

POR FAVOR QUE NO INTERVENGA

LA POLICIA

NO TEMOS GANAS

DE QUITAR VIDAS

ETA VASAMBLEA
POR FAVOR OBEDEZCA
NO QUEREMOS
HACER DAÑO
AVISO ETA
D

Letra behartuz. Rubén Díaz de Corcuera.

Lehen iritzia. Hitz gutxi, eta handiak, baina eskuz idatzita (hor artistak bere ofizioa erakutsi du). Hitz gutxi baina, nolabait, hitz adierazkorrak. Adierazkorrak adierazleari, letrari eta, elkarrekin, esanahiari eta kontzeptuei dagokienez. Eta, alderantziz ere, adierazkorrak edukiaren planoan eta, beraz, grafismoaren adierazkortasunari berari eraginez.

Paper soilean (paper-bilkarian) edo aurrez inprimatutakoan idatzitako hitzak (azken kasu horretan, nabarmentzekoa da euskarri gisa aukeratu direla iberiar penintsularen zenbait mapa, politikoak zein fisikoak, errepideenak eta hirietako planoak).

Letraren grafismo batzuek tamaina itzela izango dute, eta diseinu gogorra (bunker batenaren antzekoa), euskarri handi-zabalak betez eta testua irakurgarritasunaren mugaraino eramanez. Beste kasu batzuetan, irakurgarritasun eskasa letra-tipo gotiko bat erabiltzetik dator (Antique Frakturschrift edo antzekoren bat), zeinak faxismoa iradokitzen baitu, zalantzarik gabe.

Letra-tiporik irakurterazena euskarazko hitzentzat diseinatu da: euskal, jotake, apurtu, greban, herria, etxera, kanpora, kalera, askatu, etab. Milaka aldiz entzun eta milioika aldiz idatzitako esaldietatik ateratakoak.

Testuak zabaltzen duen esparru semantikoa: Euskal Herria, ETA, monarkia, diktadura, demokrazia.

Idazketaren artea. Idazketa: adierazle fonetiko baten adierazle isila. Giza eztarriek ebakitako soinu-kateen ikur bisuala. Kontzeptuak ernatzeko eta objektu multzo ugari (edo bakar bat) aipatzeko botere misterioitsua duten irudi akustikoak. Alfabetoa eta fonemak, letrak eta dagokien soinua... lotura guztiz arbitrarioa dute, hitzetan eta esaldietan pilatutako fonemek eta esparru semantikoek bezala. Hizkuntzan, lotura oro da arbitrarioa, konbentzio bat delako hizkuntza, ikur-sistema bat. Konbentzio sendoa da, orde. Besteekin eta geure buruarekin komunikatzeko aukera ematen digun tresna. Subjektibotasuna da sistemaren oinarria, hain zuzen.

Forzar la letra. Rubén Díaz de Corcuera.

Primeras impresiones. Pocas y grandes palabras pero escritas a mano (aquí hay mucho oficio de la artista). Pocas palabras pero, de un modo u otro, expresivas. Expresivas en el significante, en la letra, y solidariamente en el significado, en los conceptos. Y también a la inversa, expresivas en el plano de contenido afectando entonces a la expresividad del propio grafismo.

Palabras escritas sobre papel liso (papel de rollo) o preimpreso (y en este caso a destacar la elección como soporte de varios mapas de la península ibérica, mapas políticos y físicos, de carreteras y callejeros).

Algunos grafismos de letra presentarán un tamaño descomunal y un diseño duro (como de búnker), colmando los amplios y largos soportes y colocando el texto al límite de la legibilidad. En otros casos el déficit de legibilidad proviene del recurso a una fuente de letra gótica (Antique Frakturschrift o similar) inevitablemente connotada de fascismo.

La más legible de las fuentes ha sido diseñada para las palabras en euskera: euskal, jotake, apurtu, greban, herria, etxera, kanpora, kalera, askatu, etc. Extraídas de frases mil veces oídas, un millón de veces escritas.

El campo semántico al que se abre el texto: Euskal Herria, ETA, monarquía, dictadura, democracia.

El arte de la escritura. La escritura: el significante mudo de un significante fonético. Símbolo visual de cadenas de sonidos articuladas por gargantas humanas. Imágenes acústicas que tienen el misterioso poder de suscitar conceptos y también de referirse a amplísimos conjuntos de objetos (o a uno solo). Alfabeto y fonemas, las letras y su sonido, tienen un vínculo tan arbitrario entre sí como los propios fonemas, agrupados en palabras y frases, y sus campos semánticos. Todo vínculo es arbitrario en el lenguaje ya que se trata de una convención, un sistema de símbolos. Pero una convención sólida. La que permite comunicarnos con otros y con nosotros mismos. El sistema que funda la subjetividad, nada menos.

Zenbait letra-tiporen diseinuak (hots, tipografia batzuenak) betaurrekoen oso antzekoa den egoera dute xede, idealki (horien bidez ikusteko daude diseinatuak, eta haiek berak ikusteko). Beste letra-tipo batzuk, aldiz, nabarmentzeko diseinatzen dira. Funtzio estetikoak (R. Jakobsonek esango lukeen bezala). Hizkuntzaren plano adierazlea (idazmenarena, kasu honetan) bere gainean itzulia.

Nerea Lekuonak idazketari buruzko lan bat egin du, eta adierazlearen asetasun mailak, idazketaren formaren gaineko eraginak, lotutako esparru semantikoak desorekatzeko efektua du. Hori da, hain zuzen, Nerearen lanaren ekarpen nagusia. Kontzeptu (politiko?) batzuei estres-proba egitea, lan formal trinko baten bidez, bukaerara arte eta aurreratu bat harago joateko asmoz.

Artearen politika. Irudi batek amorrarazteko duen gaitasuna (zeina ez baitago irudian, baizik eta ikuslearen baitan) haren izaera politikoaren adierazle ona izan daiteke. Izan ere, politikak sentimendu indartsuak sortzen ditu (adibidez, gorrotoa). Aitzitik, artearen ezaugarri den ambigüotasuna, artearen polisemia eta berezko irekidura (U. Eco kontzeptu horri esleitu zion zentzuan) kontrapuntu egokia dira. Artearekin, batek ez daki nondik jo.

Masen komunikazio politikotik gauza asko espero ditzakegu: hitzaldia, agindua, elkarretaratzeko deia. Mezu uniboko eta argiak, edonola ere. Eta arteaz justu kontrakoa da espero izatekoa. Hori izan daiteke, hain zuzen, artea politikan txertatzeko modua, artearen sarbidea. Errepresentazio-objektu berriak bilatzea, egungo «sentikortasunaren banaketak» (J. Rancièrè) aldatzea eta zalantzan jartzea, kultura hankaz gora jartzea, zimenduak askatzea, oinarri sendoak harea mugikor bihurtzea. Beste modu batera esanda, atzerriratzea sortzea, begirada xaxatzea, ikusleak aztoratzea.

Demokrazia. Kalea nirea da. Diktadura. Idazketaren gehiegizko ortogonalizazioa (idazkera gehiegi moldatzea euskarriaren horizontaltasunera eta bertikaltasunera). Hitz bakar bat irakurtzeko esfortzu handia egin behar da hemen. Tarte hartzea, letraz letra idaztea, ispilura begiratzea. Hori guztia gorabehera, hein batean itxita mantentzen da, zeinua irakurketa adierazkorraren mailan geratzen da, hots, maila abstraktuan (Mondrianen neoplastizismoan bezala interesatzen zaigu letra hemen). Esanahiak, behin lortzen denean, zeinu oso bat osatzen du (bi aldeko orri bat, Saussureren hitzetan). Ezin dugu ikusi ez bagenu bezala egin. Nereak landutako adierazlea zeinuaren alde indartsua da oraindik ere, ordea. Aukera bakarra, beraz, haren garaipena onartzea eta letran murgiltzea da (horretarako gonbita zuzenean egingo digu piezaren batek). Artistak sortu dituen labirintoetan bizitzea, eta bertan haurrak bezala jolastea.

El diseño de ciertas fuentes de letra (de ciertas tipografías) aspira idealmente a una condición muy similar a la de las gafas (hechas para ver a través y no para verlas a ellas). Otras fuentes de letra se diseñan, por el contrario, para significarse. Función estética (que diría R. Jakobson). El plano significativo del lenguaje (del lenguaje escrito en este caso) vuelto sobre sí mismo.

El intensivo trabajo sobre la escritura que realiza Nerea Lekuona, este nivel de saturación significativa, de incidencia sobre la forma de la escritura, tiene el efecto de desestabilizar los campos semánticos asociados. Y esta es la gran aportación del trabajo de Nerea. Someter a pruebas de stress algunos conceptos (¿políticos?) por el procedimiento de un trabajo formal intensivo, con vocación de ir hasta el final y algo más lejos.

Política del arte. La capacidad ofensiva de una imagen (que reside no en la imagen sino en su intérprete), puede ser un buen indicador de su carácter político. Ya que la política desata fácilmente pasiones (como por ejemplo, el odio). Por el contrario, la ambigüedad característica del arte, su polisemia, su apertura constitutiva (en el sentido asignado a este concepto por U. Eco), actúa como un acertado contrapunto. Con el arte uno no sabe a qué quedarse.

De la comunicación política de masas se puede esperar la soflama, la consigna, las llamadas a filas. Mensajes unívocos y claros, en cualquier caso. Y del arte se debe esperar más bien lo contrario. Y este puede ser precisamente el modo de inserción del arte en la política, su puerta de entrada. La conquista de nuevos objetos de representación, la alteración y el cuestionamiento de los vigentes “repartos de lo sensible” (J. Rancièrè), producir seísmos en la cultura, remover cimientos, tornar los firmes suelos en arenas movedizas. Dicho de otro modo, causar extrañamiento, excitar la mirada, perturbar al público.

Democracia. La calle es mía. Diktadura. Ortogonalización excesiva de la escritura (excesivo acomodo de la escritura a la horizontalidad y verticalidad de los soportes). La lectura de una sola palabra exige aquí un gran esfuerzo. Tomar distancia, deletrear, mirar en un espejo. A pesar de lo cual el significado permanece parcialmente ocluido, el signo permanece en un nivel de lectura significativa, es decir, abstracto (la letra nos interesa en esta fase como nos interesa el neoplasticismo de Mondrian). El significado, una vez alcanzado, forma un signo completo (un folio de dos caras, en imagen de Saussure). Ya no podremos ignorarlo. Pero el significativo trabajado por Nerea sigue siendo el lado fuerte del signo. No hay otra opción entonces que aceptar su victoria y sumergirse en la letra (a lo cual se nos invita expresamente en

Kontsignak. Euskararen eta iberiar penintsularen batura oximoron bat izan daiteke, hau da, bi ideia kontrajarri lotzen dituen figura erretorikoa (adibidez, isiltasun ozena, hazkunde negatiboa). Oximorona nazionalista espainiar batentzat eta euskal nazionalista batentzat. Aurrenekoarentzat, euskal hitzek konnotazio jakin batzuk dauzkate edo, nahi izanez gero, kutsatuta daude, ezker independentistaren kartel eta pintaketetan eman zaien erabilera edo gehiegizko erabilera dela eta, Euskal Herriko hormetan nonahikoak direlako. Bigarrenentzat, iberiar penintsularen siluetak ditu konnotazio negatiboak: errepresioa, menderakuntza, inperioa.

Pieza hauentzat Nereak sortu duen tipografiak oihu bat iradokitzen du. Ulu baten tipografia gisa interpreta daiteke, nire ustez. Oihu sinkopatuak, erdi esanean geratutako esaldiak, baina penintsula osoa betetzeko nahikoa, akidurara arte puzteko nahikoa.

Promes egin dezaket eta promes egiten dut. Pieza bilkari edo zirkular hauetan, errepikapena da estrategia. Gauza jakina da errepikapenak zeinua zapaltzen duela, errepikapenak esanahia galarazten duela (arrosa bat arrosa bat da arrosa bat da...) eta une batez adierazle puru bat ikusten dugula. Zeinuaren gorputza geratzen da, eta arima galtzen da. Materiala den hori geratzen da, eta ulergarria den hori desagertzen. Beraz, zeinua gorpu gisa geratzen da, edo gorpua zeinu gisa. Adolfo Suárezek bere hitzaldietan behin eta berriz errepikatzen zuen esaldi hura bezala. Promes egin dezaket, eta promes egiten dut. Erretorika hutsa. Hustasun hori areagotu egiten da idatzizko adierazlea errepikatzean. Baina edozer gauza bider zero eginda, emaitza beti da zero. Gezur bat milioi aldiz errepikatuta ez da egia bilakatzen, asperdura eramanezin baizik.

Mehatxuak. Bideoak. Hemen, bi iturri dauzka letrak jasaten duen estresak. Alde batetik, pantailan testu bat agertzen da, idazteko ekintza bera simulatzen den momentuan bertan ikusgai egiten diren hitzak. Bestetik, testu iruzkindu bat da. Emakumezko baten offeko ahotsa entzuten da (grafologo batena), idazkera horri dagokion profil psikologikoa azaltzen. Gauza jakina da, izan ere, adituek pertsona baten izaera nolakoa den jakin dezaketela idazkera aztertuta. Letren tamainak, lerroen norabideak, loturek, kurbadurak, txukuntasunak, antza denez, ezaugarri psikologiko batzuk adieraz ditzakete.

Beraz, arretaz jokatu behar dugu, bi testu horiek aldi berean ulertzeko. Idatziz zerga iraultzailea eskatzen duen norbaiten testua, eta testu horren atzean dagoen pertsona, gizona edo emakumea, deskribatzen duen grafologo-psikologoa. Mehatxuaren edukia bera alde batera utzita. Gerora jakingo zen beste kontu bat ere alde batera utzita: oportunistak baten kaligrafia zen, testuaren egiazko egileak iruzurgileak ziren, doilor narrasak, sasiterroristak. Testuak Nereak bilatu zituen artxibo historiko batetik (antza denez, dena artxibatzen da, egia edo gezurra izan).

alguna pieza). Habitar los laberintos en los que nos ha metido la artista, jugar dentro como chiquillos.

Consignas. La unión de euskera y península ibérica puede muy bien constituir un oximoron, esa figura retórica consistente en la unión forzada de dos opuestos (por ejemplo, silencio clamoroso, crecimiento negativo). Un oximoron tanto para un nacionalista español como para un nacionalista vasco. Para el primero las palabras en euskera estarán necesariamente connotadas, o si se prefiere, contaminadas, de su uso y abuso en la cartelería y las pintadas de la izquierda independentista, de su omnipresencia en los vascos muros de euskal herria. Para los segundos, será la silueta de la península ibérica lo que se tiña de connotaciones negativas: represión, dominio opresivo, imperio.

La tipografía creada por Nerea para estas piezas de mapa sugiere el grito. Puede ser interpretada, en mi opinión, como tipografía de alarido. Gritos sincopados, frases a medio decir, pero capaces de llenar la península entera, de atiborrarla hasta el empacho.

Puedo prometer y prometo. En estas piezas de rollo (o de círculo) la estrategia es de repetición. Es bien sabido que la repetición lamina el signo, que la repetición provoca el extravío del significado (una rosa es una rosa es una rosa...) y que nos quedemos por un instante en presencia del significante puro. Queda el cuerpo del signo y se extravía su alma. Queda lo material y desaparece lo inteligible. Queda por tanto, el signo como cadáver o el cadáver como signo. Como en aquella célebre coletilla que empleaba repetidamente Adolfo Suárez en sus discursos. Puedo prometer y prometo. Retórica vacía. Vacío que se multiplica en la repetición de su significante escrito. Pero cualquier cantidad que multiplica al cero sigue dando cero. Una mentira repetida un millón de veces no se transforma en verdad, se transforma en un sentimiento de mortal aburrimiento.

Amenazas. Los vídeos. Aquí el stress al que se somete a la letra tiene doble procedencia. Por una parte lo que aparece en pantalla es un texto, palabras que se revelan al mismo tiempo que el acto simulado de su escritura. Por otra parte se trata de un texto comentado. Hay una voz en off femenina, la voz de una grafóloga, que nos ofrece el perfil psicológico correspondiente a dicha escritura. Pues es bien sabido que lo escrito a mano puede indicar a los expertos el carácter, la personalidad de su autor. El tamaño de las letras, la dirección de las líneas, los enlaces, la curvatura, la limpieza, revelan, al parecer, algunos rasgos psicológicos.

Se nos fuerza por tanto a prestar atención, en paralelo, a estos dos textos. El de alguien que solicita por escrito el impuesto revolucionario, y el de la grafóloga-psicóloga que describe al

Bideoaren aldamenean, artistaren proposamen arrazional eta aldi berean dibertigarria. Kaleko karteletatik moztutako letrak erabili ditu mehatxuak kopiatzeko, maila plastikoan hobetzeko. Horrela, detektibe eta grafologoen begiradatik ihes egiteko (ez, orde, arte-kritikarien begiradatik). Pista pertsonalik ez emateko. Nork bere burua agerian ez uzteko. Estortzioaren lehen araua.

Francarlos. Letrarik edo testurik gabeko erakusketaren lehen pieza. Bi estatubururen erretratu fotografikoak: diktadorea eta haren ondorengoa (aurreko erregea). Arte optikoko pieza bat, esan genezake. Bisitaria aurretik igarotzean aktibatzen den eta bibratzen duen lan bikoitz bat. Hemen, begirada hanken mende dago, begien mende bezainbeste: desplazamendua zein begirada dira garrantzitsuak. Benetako pieza ez datza irudi bat bestearen gainetik egotean, edo aurretik bata edo bestea izan zen argitzean, baizik eta guztiaren aldirerotasunean. Pieza ez da osatzen, halaber, erretratu bat bestearen gainean jartzearen irudi frankensteindarrarekin, erretratu bat bestearen barruan desagertzearekin. Piezak, ene aburuz, aukera guztiak biltzen ditu (baita baten bat gehiago ere), eta ez bakar bat modu eskusiboan. Joko baten pieza bat da, pieza ludiko bat, funtsean.

individuo, el hombre o la mujer, detrás del texto. Dejando a un lado el contenido mismo de la amenaza. Dejando a un lado, el hecho, posteriormente revelado, de que se trata de las palabras y la caligrafía de algún oportunista, de que los textos pertenecen en realidad a impostores o impostoras, chapuceros de la infamia, falsos terroristas. Textos rescatados por Nerea de algún archivo histórico (al parecer se archiva todo, verdadero o falso).

Junto al vídeo la propuesta, racional y divertida a la vez, de la artista. Utilizar letras recortadas (de carteles recogidos en la calle) para replicar estas mismas amenazas, acrecentarlas en un nivel plástico. Escapar de ese modo al escrutinio de los detectives y las grafólogas (aunque no al de los críticos de arte). No dar ninguna pista personal. No delatarse. De primero de extorsión, vamos.

Francarlos. La única pieza de la exposición que no incluye letra o texto. Retratos fotográficos oficiales de dos jefes de estado, el dictador y su sucesor en el cargo (el anterior monarca). Una pieza de arte óptico, podríamos decir. Un dos en uno que se activa y vibra al paso del visitante. Aquí la pieza depende de las piernas tanto como de los ojos, del desplazamiento tanto como de la mirada. La verdadera pieza, no consiste en la prevalencia de una imagen sobre la otra, no reside en el acto de dilucidar la anterioridad o posterioridad de una y otra, sino la simultaneidad en todo caso. La pieza no se consume tampoco en la imagen un poco *frankenstein* que surge de la irrupción de un retrato en otro, la desaparición de un retrato en el interior de otro. La pieza en mi opinión, reúne todas estas posibilidades (y alguna más) y ninguna en exclusiva. Es una pieza de juego, una pieza esencialmente lúdica

Nerea Lekuona

www.nerealekuona.com

Nerea Lekuonaren (Gasteiz, 1976) lana beti da ingurunera egokitzeko, eta intuizioa eta zolitasuna lantzeko ariketa. Bere proposamenetan gurutzatu egiten dira irudiak, idazketa, ekintza, bitartekaritza eta egungo egoeraren analisia.

Alderdi grafiko eta bisualetatik abiatuta, bere proiektu artistikoan gero eta gehiago dira instalazio, esku-hartze eta formatu zabalduak, eta bertan, gure munduari buruzko ikuspegi kritiko batekin elkartzen ditu bere adierazpen-baliabide guztiak. Horrenbestez, bere lanak gaitasun tekniko ugari dakar berekin, non formatuen hibridazioak, hausnarketa politikoek, sentsibilizazio sozialak, abileziak eta ironiek arau eta eruedetatik aldentzera bultzatzen baitute.

Diseinu, zinema eta bideoaren arloko prestakuntzaren osagarri, lantegi eta ikastaroak egin ditu hainbat artistarekin: Esther Ferrer, Isidoro Valcárcel Medina, Daniel Canogar, Miguel Trillo eta Luis de la Alas, besteak beste.

Nerea Lekuonak Gasteizko Amarika Proiektuan (2008-2011) parte hartu zuen, Arabako Foru Aldundiaren erakusketa-espazioen kudeaketa alternatiboko esperientzian. 2018an, Artiumek kudeatutako "Itineracciones" deialdian, aukeratua izan zen berak egindako Bajo el agua lana. Bertan, Uribarri Ganboako urtegiko uraren azpian desagertutako herrien memoria lantzen du. Beste euskal artista batzuekin batera "APEIRON" Euskal bideo-artearen erakustaldian parte hartu zuen, Uruguako Montevideoko II. Festival Cervantino jaialdian. Madrilen, Artbanchel 2018 jaialdian parte hartu zuen, In June we trust espazioan.

2016an, Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro Museoko "Praxis" programara gonbidatu zuten. Urte horretan bertan, Centro de Holografía y Artes Dados Negros zentroko "Procesos" erakusketan parte hartu zuen.

Hainbat sari eta beka lortu ditu, eta horien artean azpimarratzekoak dira Montehermoso kulturuneko "Plusmarca Euskadi" (2014), eta Bitamine Faktoriaren EAS-RIO beka. Azken honen bitartez, Rio de Janeiroko Capacete artisten egoitzara bidaiatu zuen 2018an.

El trabajo de Nerea Lekuona (Vitoria-Gasteiz, 1976) es siempre un ejercicio de adaptación al medio, de intuición y perspicacia. En sus propuestas se cruza el tratamiento de las imágenes, la escritura, la acción, la mediación y el análisis de la circunstancia actual.

Partiendo de aspectos gráficos y visuales, en su proyecto artístico ha ido ganando terreno la instalación, la intervención y los formatos expandidos, en los que hace convivir todos sus recursos expresivos con una perspectiva crítica sobre el mundo que compartimos. Así, su trabajo supone todo un despliegue de competencias técnicas en el que la hibridación de formatos, las reflexiones políticas, la sensibilidad social, las astucias y las ironías invitan a un distanciamiento de las normas y las formas establecidas.

Su trayectoria formativa en diseño, cine y vídeo se complementa con cursos y talleres junto a artistas como Esther Ferrer, Isidoro Valcárcel Medina, Daniel Canogar, Miguel Trillo y Luis de la Alas entre otros y otras.

Nerea Lekuona participó en el Proyecto Amarika (2008-2011) de Gasteiz, experiencia de gestión alternativa de diferentes espacios expositivos de la Diputación Foral de Álava. En 2018 es seleccionada dentro de la convocatoria "Itineracciones" gestionada por Artium, con la intervención rural Bajo el agua, donde trabaja la memoria de los pueblos desaparecidos bajo el agua del embalse de Ullibarri-Gamboa. Toma parte junto a otras artistas vascas en la muestra "APEIRON: Muestra de videoarte vasco", en el II Festival Cervantino de Montevideo, Uruguay. Participa en el festival "Artbanchel 2018", Madrid, con una intervención en el espacio In June we trust.

En 2016 es invitada al programa "Praxis" del Centro Museo Vasco de Arte Contemporáneo Artium. Ese mismo año participa en la exposición Procesos en el Centro de Holografía y Artes Dados Negros.

Recibe premios y becas entre los que cabe destacar "Plusmarca Euskadi" (2014), del Centro Cultural Montehermoso y la beca EAS-RIO de Bitamine Factoria con la que viaja a la residencia de artistas Capacete, en Rio de Janeiro durante 2018.

2020an izeneko “Desataduras” erakusketa antolatu zuen Montehermoso Kultur Zentroan, eta 2021ean Iruñeko Ziadadelako pabilioian erakutsi zuen.

2021ean VEGAP beka eta Eusko Jaurlaritzaren sorkuntza beka jaso ditu.

2016an sortu zenetik 2022ra arte, Gasteizko arte garaikideari eskainitako Zas Kultur Espazio independentearen edukiak eta programak kudeatzen lagundu du, baita Euskadiko eta Nafarroako artista hasi berrien “Inmersiones” urteko kongresuan ere.

2021ean haren instalazioetako bat eskuratu zuen Artium Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak, eta museoaren bildumaren parte da gaur egun.

En 2020 realiza la exposición “Desataduras” en el Centro Cultural Montehermoso y en 2021 se expone en el Pabellón de mixtos de Ciudadela Pamplona.

Durante el año 2021 ha recibido la beca VEGAP y otra otorgada por Gobierno Vasco para producción.

Desde su inicio en 2016 hasta 2022 ha participado en la gestión de contenidos y programación de Zas Kultur Espazioa, espacio independiente dedicado al arte contemporáneo de Vitoria-Gasteiz, así como en el congreso anual de artistas emergentes de País Vasco y Navarra, “Inmersiones”.

En 2021 el Museo de Arte Contemporáneo del País Vasco Artium, adquirió una de sus instalaciones y actualmente forma parte de la colección del museo.



V
e
G
a
P

m
montehermoso



ZAS KULTUR
ESPAZIOA